



Eukenitik

Jon Zubiaurren argazkiak



Eukeni, 6 metroko eslorra eta 50 urte daukazan txalupia da. Jabi Eiguren “Patxon” sokagileak orain dala 15 bat urte erosi eban 2. eskutik. Nik mantenuagaz laguntzen deusat, eta giltza eta bere baimena daukadaz, nahi dodanean ibilteko.

Hasieran arrantzan urtetan genduan alkarregaz: tximinoitan Ogellara, txitxarrotan edo hagin-zorrotzatan kazan...

Horrelako batean, Talatik prismatikoakin itsasora begira nagoala, txori zurrumbilo haundi bat ikusi neban urrunian; txoriari begira-begira nabilela (txorizalea naiz eta), uretatik izurda batek salto egin eban, eta konturatu nintzan izurda piloa egoala inguru horretan: “manjuja” zan! Lekeition manjuja esaten jakon bai izurdak, bai hegalaburrak, haginzorrotzak, e.a. arrain txiki (sardina, antxo...) sarda bat bildu eta azaleratzen dabenean, orduan itsas-txoriak aprobetxatzen dabelarik airetik erasoteko. Txori aldra harek markaten eutsen arrantzaleari arraina non egoan, sarea botateko. Izurdak ikusi nebazanean, Patxoneri telefonoz deitu, eta nire seme biakin laurok urten genduan *Eukenin* bertaruntz... heldu orduko, marikua ikusi genduan santz bateri segika, ikaragarria! Gero koplak dzangaka, eta izurda arruntak 4-5 granoko taldetxoka gugana etortzen; inguratuten gintuezan, txalupa azpitik pasa... euran txilioak be entzuten genduzan!

Beste mundu baterako atea zabaldu jaten. Ordutik hona jarraitu dot *Eukenin* urtetan Lekeitioko aurrean bertan daukagun beste mundu basati horrerik “kurik” egiten, bertako piztiak ikusten eta ezagutzen. Itsas-natura bere horretan: kaio espezie desbardinak, bajuran ibiliko lagunari entzundako “anpormaixuak”, “marikuak”, “matxiplakak”; izurdak, baita “balaik” be...

Hor daukazue Lekeitioko beste “patari” horrerik *Eukentik* eginiko argazki sorta bat.

Jon Zubiaur

Izurdeak



Izurde zerrendatua
Stenella coeruleoalba



Kakot zuria edo izurde muturmotza
Grampus griseus





Izurde arrunta
Delphinus delphis



Zereak



Zere arrunta
Balaenoptera physalus



Kaioak

Audouin kaioa
Larus audouinii



Kaio mokohoria
Larus canus



Kaio baltza
Larus marinus



Ipar kaioa
Larus glaucoides



Audouin kaioa (gaztea)
Larus Audouinii



Santza edo kajo hankahoria
Larus michahellis



Kalaxori edo antxeta burubaltza
Ichthyaetus melanocephalus



Ancheta hankabaltza
Rissa tridactyla

Koplak



Kopla edo zanga
Sula bassana



Karrabasuak



Karrabasuak edo ubarroi mottodunak
Phalacrocorax aristotelis

Potorruak



Pottorro arrunta
Alca torda



Martina
Uria aalge



Anpormaixo edo lanperna musua
Fratercula arctica

Martinak



Gabai arre atlantikoa
Calonectris borealis



Gabai handia
Ardenna gravis



Gabai arre mediterranearra
Calonectris diomedea



Gabai balearra
Puffinus mauretanicus



Marikoi isatsluzea (gaztea)
Stercorarius longicaudus



Marikoi edo marikaka handi
Catharacta skua

Marikuak



Marikoi isatsbihurra
Stercorarius pomarinus



Marikoi isatslaburra (erasoka)
Stercorarius parasiticus



Itsas enara baltza
Chlidonias niger



Txirrinak



Txenada bengaliarra
Sterna bengalensis



Txenada hankabaltza
Sterna sandvicensis

Mendebaldeko txoriak



Mendebal-txori mokolodia
Phalaropus fulicarius



Mendebal-txori mokomehea
Phalaropus lobatus

Matxiplaka



Matxiplaka edo ekaitz-txoria
Hydrobates pelagicus



Gabillara edo belatz handia
Falco peregrinus



kopla edo zanga iluna
Sula leucogaster

Hegazti tropikala. Cabo verdén edo Caribbean bizi diraz. Sorpresa haundi bat izan zan hamen agertzea, Europan. Holanda eta Inglaterrako aldizkari batzutan atara ebezan argazkiok.